

Eusko Ikaskuntzaren Deia

120.a
1993.3



**EUSKO
IKASKUNTZA**



Eusko-Ikaskuntzaren Deia

Boletín de la Sociedad
de Estudios Vascos

Bulletin de la Société
d'Etudes Basques

PUBLICATION INTERNATIONALE
TRIMESTRIELLE

XIII Urtea - 2 Aroa - 120 Zenbakia
1993ko III Hiruhilabetea



**EUSKO
IKASKUNTZA**

"Bekoak goikoa
eskondu leidi
ta txikiak andia
benzi leidi
asmoz ta jakitez"

(Escudo de Armas de los AULESTIA. Bizkaia)

Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko, Di-
putazioek 1918an sortutako erakundea

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones
de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa

Institution fondée en 1918 par les «Diputaciones»
d'Araba, Bizkaia, Gipuzkoa et Nafarroa.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIAZKO FITXA
FICHA BIBLIOGRAFICA RECOMENDADA
REFERENCE BIBLIOGRAPHIQUE RECOMMANDÉE

EUSKO Ikaskuntzaren Deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos = Bulletin de la Société d'Etudes Basques.- 1
zb. (1919) - 69 zb. (1936); 2. aroa 70 zb. (1981) /
. - Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1919-1936; 1981-

Trimestral

21 cm.

Hasta el nº 115 (1992) se titulaba: Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos = Eusko Ikaskuntzaren Deia.

I. Eusko Ikaskuntza II. Eusko Ikaskuntzaren Deia III. Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos IV. Bulletin de la Société d'Etudes Basques

061.22(05)



Hauen laguntzarekin - Con el patrocinio de - Sous l'égide de:

ARABAKO DIPUTAZIO FORALA
BIZKAIKO DIPUTAZIO FORALA
GIPUZKOAKO DIPUTAZIO FORALA
NAFARROAKO GOBERNUA
EUSKO JAURLARITZA

EUSKO-IKASKUNTZA

Legazpi, 10 - 1.^o 20004 - Donostia
Legezko gordailua: S.S. 643/93
Fotokonposaketa eta inprimaketa
Mitxelena Artes Gráficas - San Sebastián

IDAZKARITZA NAGUSIA - SECRETARIA GENERAL- SECRETARIAT GENERAL

Gipuzkoako Diputazio Forala

Legazpi, 10 - 1º

20004 - Donostia

Telefona: 943 - 42 51 11

Fax: 943 - 42 22 50

Ordutegia/Horario/Horaire: 9'30-14 / 16-19

ARABAKO BULEGOA - OFICINA DE ALAVA - BUREAU D'ARABA

Arabako Diputazio Forala

San Antonio, 41

01005 - Gasteiz

Telefona - Fax: 945 - 23 15 52

Ordutegia/Horario/Horaire: 17'30-20

BIZKAIAKO BULEGOA - OFICINA DE BIZKAIA - BUREAU DE BIZKAIA

Bizkaiko Diputazio Forala

Maria Diaz de Haro, 11 - 1º

48013 - Bilbao

Telefona: 94 - 4 425 287

Fax: 94 - 4 414 650

Ordutegia/Horario/Horaire: 11-13'30

NAFARROAKO BULEGOA - OFICINA DE NAVARRA - BUREAU DE NAFARROA

García Castaño, 2 - 6º

31002 - Iruña

Telefona: 948 - 22 21 05

Fax: 948 - 21 17 37

Ordutegia/Horario/Horaire: 11-14

IPARRALDEKO EGOITZA - SEDE DE IPARRALDE - SIEGE DE IPARRALDE

"Hegoa" - Villefranche

64990 St. Pierre d'Irube

Telefona: 59 449297

Fax: 59 449159

EUSKAL HERRIKO HISTORIA KONTENPORANEOKO

DOKUMENTAZIO ZENTROA

CENTRO DE DOCUMENTACION DE HISTORIA CONTEMPORANEA

DEL PAIS VASCO

CENTRE DE DOCUMENTATION D'HISTOIRE CONTEMPORAINE

DU PAYS BASQUE

Pampinot, z/g

20280 - Hondarribia. Gipuzkoa

Telefona - Fax: 943 - 64 10 77

AURKIBIDEA

1. AKTAK	
1.1. Batzorde Nagusiaren 1993.eko ekainaren 26ko bilkura	7
2. TITULU ETA KARGUAK	
2.1. Batzorde Nagusiko kargu hautatuak	29
2.2. Batzorde Nagusiak izendaturiko karguak.....	29
3. KUTXAREN EGOERA	
3.1. 1993.eko II. hiruhileko sarrerak eta gastuak.....	30
3.2. Diruzaintzaren egoera 93.06.30ean	32
4. IHARDUERAK	
4.1. Orokorrak	
1993.eko hirugarren hiruhileko agenda	33
Udako Ikastaroak	33
Elen 75. urteurrenaren ospakizun ekitaldia.....	38
4.2. Lan Sailak	
Saietako Lehendakarien txostenak.....	46
1993.eko III. hiruhilekoan jasotako ikerketa lanen laburpena	50
Ikerketa lanetarako diru laguntzen arautegia	52
4.3. Beste erakundeekiko harremanak	
Batzorde Nagusiak proposaturiko kide berrien erantzunak	60
Merkatal Ganbarekin eginiko hitzarmenak.....	61
5. BAZKIDEAK	
5.1. 70. baziode zerrenda.....	64
6. ARGITALPENAK	
6.1. Elkartearen argitalpen berriak	65
6.2. 1993.eko III. hiruhilekoan Eusko Ikaskuntzan jasotako liburuen zerrenda	66

INDICE

1. ACTAS	
1.1. Sesión de Junta Permanente de 26 de Junio de 1993.....	7
2. TITULOS Y CARGOS	
2.1. Cargos electos de la Junta Permanente.....	29
2.2. Cargos nominados de la Junta Permanente	29
3. ESTADO DE CAJA	
3.1. Ingresos y gastos del II trimestre de 1993.....	30
3.2. Situación de Tesorería en 30.06.93	32
4. ACTIVIDADES	
4.1. Generales	
Agenda del tercer trimestre de 1993.....	33
Curso de verano	33
Acto conmemorativo del 75 aniversario.....	38
4.2. Secciones de Trabajo	
Informes de Presidentes de Sección	46
Resumen de los trabajos de investigación recibidos en el III trimestre de 1993	50
Normativa de ayudas a trabajos de investigación	52
4.3. Relaciones con otras instituciones	
Contestaciones a la propuesta de nuevos miembros de la Junta Permanente	60
Convenio con las Cámaras de Comercio	61
5. SOCIOS	
5.1. 70 ^a lista de socios.....	64
6. PUBLICACIONES	
6.1. Nuevas publicaciones de la Sociedad.....	65
6.2. Relación de libros recibidos en Eusko Ikaskuntza en el III trimestre de 1993	66

SOMMAIRE

1.- ACTES	
1.1. Séance de l'Assemblée Permanente du 26 Juin 1993.....	7
2.- TITRES ET NOMINATIONS	
2.1. Postes élus par l'Assemblée Permanente.....	29
2.2. Postes nommés par l'Assemblée Permanente	29
3.- SITUATION FINANCIERE	
3.1. Recettes et dépenses du IIIème trimestre de 1993.....	30
3.2. Etat de la trésorerie au 30.06.93	32
4.- ACTIVITES	
4.1. Générales	
Agenda du IIIème trimestre 1993.....	33
Cours d'été	33
Actes commémoratifs du 75 anniversaire	38
4.2. Sections de travail	
Rapports des Présidents de Section.....	46
Résumé des travaux de recherche reçus pendant le IIIème trimestre 1993	50
Règlement concernant l'aide aux travaux de recherche	52
4.3. Relations avec d'autres institutions	
Contre-propositions à la présentation de nouveaux membres à l'Assemblée Permanente	60
Accords avec les Chambres de Commerce.....	61
5.- ASSOCIES	
5.1. 70ème liste des membres associés.....	64
6.- PUBLICATIONS	
6.1. Nouvelles publications de la Société.....	65
6.2. Liste des livres reçus à Eusko Ikaskuntza pendant le IIIème trimestre 1993	66

Batzorde Nagusiaren Bilera

Ekainaren 26an. Gipuzkoa

Sesión de Junta Permanente

26 de Junio. Gipuzkoa

Réunion de l'Assemblée Permanente

26 Juin. Gipuzkoa

- 80 Akta. 1993ko Ekainaren 26an Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Garaiaaren Jauregian Eusko Ikaskuntzako Batzorde Nagusiak egindako bilkurari dagokiona.

Partehartzaileak:

Gregorio **Monreal** jn. (Lehendakaria), Joseba **Agirreazkuena** jn. (Bizkaiko Lehendakariordea), Joxemartin **Apalategi** jn. (Gipuzkoako Lehendakariordea), Isabel **Ajuriagerra** and. (Iparraldeko Lehendakariordea), Tomas **Urzainqui** jn. (Nafarroako Lehendakariordea), Edorta **Kortadi** jn. (Idazkaria) Gurutzi **Arregi** and. (Idazkariordea), Jesus Maria **Alkain** jn. (Diruzaina), Jose **Zufiaurre** jn. (Diruzainordea), Imanol **Olaizola** jn. (Bizi guztirako kide), Mirenxtu **Goñi** and. (Antropologia eta Etnografia Saileko Lehendakaria), Laura **Alsenso** and. (Arte Plastiko eta Monumental Saileko Lehendakaria), Xabier **Arlaban** jn. (Zinematografia Saileko Lehendakaria), Coro **Cillan-Apalategi** and. (Zuzenbide Saileko Lehendakaria), Lola **Valverde** and. (Historia eta Geografia Saileko Lehendakaria), German **Yanke** jn. (Komunikabide Saileko Lehendakaria), Alvaro **Arrizabalaga** jn. (Historiaurrea eta Arkeologia Saileko Lehendakaria), José M^a **Etxebarria** (Hizkuntza eta Literatura Lehendakaria), M^a Jesus **Aranburu** and. (Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria), Francisco Javier **Zubiaur** jn. (Nafarroako Gobernuko eta Príncipe de Viana Frankundeko ordezkaria), Ana **Toledo** and. (Deustuko Unibertsitateko ordezkaria - Donostiarra Campus), Francisco **Etxeberria** jn. (Aranzadi Elkarteko ordezkaria).

Ezin etorria adierazi dute:

Jose M^a **Ortiz de Orruño** jn. (Arabako ordezkaria), Juan **Garmendia Larrañaga** jn. (Idazkari Gestioilea), Jose M^a **Urkia** jn. (Medikuntza Saileko Koordinatzalea), Jose Javier **Granja** jn. (Hezkuntza Saileko Lehendakaria), Pedro **Ramos** jn. (Arabako Foru Aldundiko ordezkaria), Jean **Haritschelhar** jn. (Euskaltzaindiko ordezkaria), Endrike **Knörr** jn. (Euskaltzaindiko ordezkaria), Ana M^a **Etxaide** and. (Nafarroako Unibertsitateko ordezkaria), Jose Manuel **Lopez de Juan Abad** jn. (Euskal Herriko Adiskideen Elkargoko ordezkaria).

Batzorde Nagusiaren bilkura hasi aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Diputatu den M^a Jesus Aranburu and.ak Eli Galdos jn. Txit Gorenaren izenean, hitz batzuk zuzendu dizkie batzarkideei eta bide batez Diputatu Nagusiaren etori ezinaren berri eman die, ELAren Kongresuan aurkitzen zela esanaz, Eusko Ikaskuntzaren ahalegin eta egitasmoak bereak egiten dituela eta, modurik egokienean eta beharrenean bete daitezen desiratu die. Lehendakariak gai ordenean puntu berri bat sartzeko baimena eskatu die batzarkideei, eta honela dio: Ikerketa lanetarako Dirulaguntzak. Aho batez **Onetsi** da proposamena.

1.- Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta egoki bada, onartzea.

Gobernu Batzordeak 1993ko martxoaren 27an eginiko bilkuren 79.zenb. Erabakien Aktaren Zirriborroari Olaizola jn.ak aurkezturiko ondorengo ZUZENKIZUNAK irakurri dira:

2. orr. - 1.1 puntuau hau sartzea: "Irakurri eta" Honela gelditu da: "....., Batzorde Nagusiak erabaki du: 1) Juan Cruz Alli jn. Txit Gorenaren ongietorri hitzaldiaren erredakzia irakurtzea eta onestea...."

Orrialde eta puntu berean honako hau eranstea: ".... ren laburpena" Honela gelditu da:

"2) Alberto Ansola jn. Txit Gorenaren hitzaldiaren laburpenaren idatzlana onestea...."

13. orr. - 22. Intxaurrendoren ordez Miracruz ipintzea. Honela gelditu da: "... HGDZko fondoak Miracruzeko Villa Asuncionera lekuz aldatzea".

Aurkezturiko **Zuzenkizunak** egin ostean akta onetsi da.

2.- Aurreko bilkuran onetsitako Erabakiak Betetzea.

Hartutako erabakien irakurketa egin du Lehendakariak: Araba, Gipuzkoa eta Iparaldeko Lehendakariordeen berriztapenaren prozesuari dagokionez, gai ordenean dagokion puntuau eztabaideatuko da. EINA eguneratzeko kudeaketan burutzapenak aurrerago zehazten dira. Iberdrolarekin eginiko Hitzarmenaren berri ere eman da, bai apirilaren 1ean lan taldearekin izandako bileraren berri eta baita maiatzaren 3an sinaturiko hitzarmenarena ere. Hitzarmenaren zenbatekoa 7.000.000,- pta.koa da, Elkarteari portzentatua bat asignatza aldiiz, ezinezkoa izan da Iberdrolak dituen fondoan murriketarengatik. Eusko Ikaskuntzaren 75. Urtemuga, XII. Kongresua eta Sainen funtzionamenduari buruzkoak, gai ordena honen 9, 10 eta 11 puntueta tratatu dira. Bazkideen Zuzenbidearen burutzapena oraingoz geldirik dago, Arrizabalaga eta Etxeberria jn.ek burutuko duten datu biltegi baten sorkuntza batekin kontatzen bada ere. Historia Garaikidearen Dokumentazio Zentruaren lekualdaketa ere oraingoz berean aurkitzen da baliabide ekonomikorik ez dagoelako.

Kultura Diputatu den Mº Jesus Aranburu and.ak hartu du hitza eta esan, Olaizola jn.ak helarazi zion 93.03.26ko Batzorde Nagusiaren erabakiak jasotzen zituen 1993ko martxoaren 27ko idaztiari erantzunez: Imanol Olaizola jn.ari zuzendutako gutunean, 1993ko martxoaren 17ko proposamena "lehen urrats bat" bezala kontsideratu behar dela, gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondare fondoak "bereganaturik" duen Eusko Ikaskuntzaren Biblioteka berreskuratzeko ahaleginetan.

Koldo Mitxelena Kulturunean leku egoki batean plaka bat ezarriko dela, bertan EUSKO IKASKUNTZAREN BIBLIOTEKA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS Zentruaren izana eta kokapena argi azalduko direlarik.

EUSKO IKASKUNTZAren fondo bibliografikoaren inventarioa, behar den bezala dokumentaturik, identifikatuko dela eta bere erlazioa EUSKO IKASKUNTZAREN BIBLIOTEKA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS bezala ageriko dela Koldo Mitxelena Kulturuneko Bibliotekaren Katalogo nagusian.

Halaber, 93.03.27ko aipatu idaztiaren 4. eta 5. puntuai dagokienez, hots, HGDZri ahalegia, azterketa sakonago eta zehatzago bat behar dutenez gero, oraingoz beste egokiera batzuren zain gelditu beharko dutela.

Batzorde Instituzionalaren martxaren berri, hurrengo puntuau azaldatuko da. Eta azkenik Joxe Migel Barandiaran Fundazioaren birfundazio proposamenari dagokionez, Arautegi Batzordeak ekainaren 29an egingo duen bilkura kontutan eduki beharko dela jakinarazi du.

3.- Lehendakariaren txostena.

Etorri diren Institutio eta Erakundeetako ordezkariei buruz, lehendakariak dio, asistentzi instituzionala Batzorde Instituzionalak uztalean egin asmo duen bilkuran eztabaidatuko dela. Kultur erakundeak ordezkatzentzituzten pertsonen aurrean egingo direla gestioak eta bilkurara etortzeko gainditu ezinezko eragozpenak izanez gero, ordezkariiz aldatzea eskatuko zaio erakundeari.

Batzorde Instituzionala martxan jartzeko egindako ahalegin itzelaren berri eman du Lehendakariak, eta aipatuarekiko dagoen uzkurkeria eta Eusko Ikaskuntzak bizi duen egoera ezerosoa; arlo honetan ekimenak hartuz gero, bidegabeki behar baino ekimen gehiago bereganateagatik erasiak jaso daitezkeelako; baina geldirik irauten badugu ez da inolako mugimendurik sortuko eta Erakundeei behar den bezala ez informatzearen erantzutea jasoko genuke. Izatez, Batzorde horren eraketa geldirik aurkitzen da eta Lehendakariaren kudeaketa batek "impass" honetatik atera zain dago. Ondoren orain artekoan erakunde inguruko personalitate jakin batzuekin izandako harremenan eta Arabako Foru Aldundira eta Kultura Diputatuari apirilaren 30ean, Gipuzkoako Foru Diputatuari maiatzaren 19an, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Diputatuari maiatzaren 11ean, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Diputatuari maiatzaren 24ean eginiko ikustaldien eta Euskal Elkartea Autonomoko Lehendakariarekin maiatzaren 25ean izandako elkarritzetaren berri eman du. Elkarritzeta hauetan urte guztian zehar leku berdineta edo antzekoetan esan dena behin eta berriro errepikatzeko aukera izan da. Lehendakariaren eskariz Memorandum bat idazteari ekin zaio, eta goian aipatu agintariei igorri: Elkarteak bizi duen larrialdi egoera kontutan izanik, ez dela denborarik izan Batzorde Nagusiko kideei aldez aurretik bidaltzeko; alabaia, Lehendakariak jakinarazi du Batzorde Nagusiko kide guztien iradokizunak jasoko dituen hasierako zirriborro ireki bat besterik ez dela oraingoz eta jadanik zenbait kidek beren iradokizunak egin dituztela. Lehendakariak azaldu du Memorandumak Elkartearen izaera agirian jartzen duela, hots, autokudeaturiko enpresa kultural publikoa, bere Elkarteen Elkarte izaera eta azkenik herriaren konfigurazioak berak ezarritako funtzioren izaera mistoa. Testoak agirian jartzen ditu bai lehen eta bai orain ere Elkartearen bere-bereak bezala hartu diren oinarrizko funtziak: elkarte zientifikoaren artikulazioa, eusko ikaskuntzen maila igotzea, kultura hedatzea, euskal kultura erakundetzea, eta ikerketak burutzea. Idazkiak agerian jarri du, berrikuntza eta eguneratze ikuspuntutik begiratuta Elkarteera erakundetzeak planteiatzen dituen arazoak, finantzaketa arazoen deskribapenean zehatzuz: iazko 16.500.000 defizita eta Elkartearen ohizko diru sarreren eta gastuen arteko desoreka. Diru sarrerei dagokienean, nabarian geratzen da behin eta berriro eta urtetik urtera erakunde sortzaile eta babesleen diru laguntzen gutimena termino errealetan; gutimen honen urteko metatua 5 eta 7 artean kokatzen denez, Elkartearen ahalmen eragikorra erabat murritzuta gelditu da, bere iharduera urritzera edota zorpean sartzera behartuz, eta une hauetan egoera honek superbizitza arazo larria sortzen du. Izatez 46 milioi falta dira aurtengo ekitaldirako aurrikusi diren oinarrizko iharduera ordain ahal izateko, hots, XII. Kongresua eta 75. urtemugaren ekintza oroitgarriak, argitalpen iharduera eta Euskal Herriko Historia Garaikidearen Dokumentazio Zentruaren kokapen eta moldaketa. Bazegoen bai, oinarrizko -proiektu- arazoak nahiz urte

honetarako Aurrekontuak tratatuko zirenaren konfidantza Batzorde Instituzionalaren bilkuran, baina zoritzarre ez dugu lortu bilkura hori egiterik. Lehendakariak aditzera eman du orain artean eta ihardueri dagokienez, kasuren batean Elkartarekiko nolabaiteko hoztasuna nabaritu dela,⁷ besteren batean axolagabekeria, eta gehienetan gogo eta asmo onak, alabaina orain artekoan ez direla behar diren ekintza positiboetan gauzatu. Elkartea diru aldetik larrialdi egoeran aurkitzen dela azpimarratu du eta fundazio publikoaren izaera duenez gero, beharrezko litzatekeela agintariekin adierazpen zabal bat egitea, Elkartearen proiektuaren baloreari eta aurtengo ekitaldirako aurkusi den aurrekontu defizitaren estaldurari dagokienez. Lehendakariak jakinarazi du baita, egoera konpontzeko aukera ez dela erabat galdu, baina hala eta guztiz ere Elkartearen etorkizunari begira, iraileko Batzorde Nagusiaren bilkuran oinarrizko neurriak hartzea behar-beharrezkoia izango dela, eta beste honenbeste aurtengo urterako aurkusi diren aparteko ekintzei buruz ere.

Iparraldeko baziideekin izandako bileraren berri eman du, eta esan Elkarteak lurralte honetan dituen ia baziide guziak bilkuran zeudela. Bilkuraren bilakaeraak agirian jarri zuela erakunde honek Iparraldean dituen posibilitateak, guzti hori, bilkura honetan onetsiak izateko, aurkezturiko baziide zerrendan ongi isladatzten delarik.

Euskal Herriko Historia Garaikidearen Dokumentazio Zentruari buruzko Erabakiaren burutzapenaren berri eman du. Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Campuseko Batzordeak martxoaren 31ean onetsi zuen Villa Asuncionen Zentrua kokatzea; Errektoordearekin maiatzaren 17an sinatu zen Hitzarmena. Alabaina, lekualdaketa ez da burutu oraino, are geldirik aurkitzen da Elkarteak duen baliabideen eskasia bitarteko.

Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariari buruz aipatu behar da Renoko Unibertsitateko Basque Studies Program-ek agertu duen interesa, Aldizkaria nazioartera zabaltzeko lankidetzari dagokionean. Aipatu Programa horretako koordinatzailearentzat beharrezkoia iruditzen zaio pertsona baten kontratazioa, zeina itzulpenaz eta Aldizkariaren sustapenaz arduratuko litzatekeen, kontratazio honek 45 eta 50 mila dolare suposatuko lukeelarik. Halaber, Aldizkariaren Erredakzio Kontseilu berriaren baitan dagoen eztabaidea, bi argitalpen egiten jarraitza ala ez, hots, bata ohizkoa eta bestea ingelesez egindakoa alegia, izan ere erabiltzen den hizkuntzak soiliik desberdintzen baiditu. Aipatu dugun Erredakzio Kontseiluak iadanik bi bilkura egin ditu aldizkaria eraldatu edo ez eztabaideatzeko eta zenbaki berriak lantzeko. Nolanahi ere prozesu hau ere geldirik aurkitzen da Elkartearen egoera ekonomiko larria bide.

Francisco Salinas Quijada jn.ari Manuel Lekuona 1993 Sariaren emakidaren kariaz eskainitako Omenaldiaren berri eman da. Emakida apirilaren 4tik 17ra aldatu zen, Juan de Borbon jn.aren heriotza zela eta Nafarroako Gobernuak dekretu bidez ekitaldi ofizial guziak bertan behera uztea erabaki zuelako; omenaldiak ikaragarrizko ospea izan zuen: Nafarroako Lehendakaria eta Komunitate Foraleko Parlamentuko Lehendakaria buru zirela eta Celaya, Poumarède y Luna irakasleen partaidetzarekin. Lehendakariak jakinarazi zuen egokia izango zela Batzorde Nagusiaren eskerrona Nafarroako Gobernuari agertzea, omenaldi ekitaldian Gobernu horrek izan zuen partaidetzagatik.

Nabarian jarri da bestalde, Asmoz eta Jakitez berripaperak eragindako zirrara baikorra eta Elkarre guziak eta Sailetako Lehendakariekin batipat berau hobetzeko egin duten ahalegina.

Azkenik, hiruhilabeteko honetan ospaturiko ekitaldien aipamena egin du: Euskal Zuzenbidearen III. Ihardunaldiak, Tokian Tokiko Historiari buruzko III. Ihardunaldiak eta

Eusko Ikaskuntzak antolatu eta Donostiaro Miramar Jauregian ospatuko diren hurrengo Udako Ikastaroak eta helburu bezala garapen zientifikoak, berrikunta teknologikoak eta elkarreko zientifikoaren ebaluapenak Baskoniari planteiatzen dizkion erronkak izango dituena.

Olaizola jn.ak hartu du hitza Eusko Ikaskuntzak egungo egunean bizi dituen arazo larriengatik, ekonomikoak batez ere, bere kezka azaltzeko, are gehiago jakinik aurten Elkartearren 75. urtemuga ospatu behar dela eta.

Azpimarratzen du Erakunde sortzaileetara eta babesleetara hurbiltzeko borondateak kontrako oihartzuna izan duela, Batzorde Nagusi hau Eusko Ikaskuntzaren baitan Batzorde Instituzional baten funtzionamendua planteatzeko orduan eragin zuen izpiritua, erabat alderantzik interpretatua izan delako.

Halaber, tamalgarria da baita Eusko Ikaskuntzak sei urtez egin duen ahalegina, Euskal Herriari, egungo aldakuntzetara eta egoera sozio-politikoetara bere zerbitzu izpiritua egokitzeko egin duen barne-gogoetan, nahi bezalako elkarritzeta giroa ez aurkitu izana, bere eraberritzte prozesua burutu ahal izateko.

4.- Araba, Gipuzkoa eta Iparraldeko Lehendakariordeetarako hautagaiaiak.

Batzorde Nagusi honek 1993ko martxoaren 27an eginiko bilkuraren Araba, Gipuzkoa eta Iparraldeko Lehendakariordeak berriztatzenko prozesua martxan jartzea erabaki zuen, egungo Lehendakariordeen agintea epea amaitu delako. Erabakia aparteko gutun baten bidez ezagutarazi zitzaien Batzorde Nagusiko kideei, hautesleean aurkezpen epea joan den ekainaren 20an bukatu zela gogoratuaz.

Ondoren agertzen diren hautagaiaiak aurkeztu dira: Eliseo Gil Zubillaga jn. Arabako Lehendakariorderako, Jose Manuel Castell Artetxe jn. Gipuzkoako Lehendakariorderako eta Isabelle Ajuriagerra Iparraldeko Lehendakariorderako. Batzorde Ttipiak egiaztatu du ea aurkezta hautagaiaiak Arautegiaren eskakizunetara lotzen diren. Hautagaien curriculumak Batzorde Nagusiko kideen artean iadanik zabaldu dira.

Batzorde Nagusiaren egoerari buruz eta hautagai bat bakarra aurkeztu dela kontutan izanik, adierazi du hirukote bat eratzeko orduan ez dagoela egiazko interpretaziorik bere arauzko eginkizunaren esangurari dagokionean. Badirudi arau hau horrela izatearen arrazoia Batzar Nagusiaren eginkizuna erraztekoarena dela, hautagaien zenbateko hirura murriztuz, hauek gehiago aurkezten direnean. Hau da, hirukoteak gehienezkoaren izaera izango lukeela eta ez gutxienezkoarena. Interpretazio hau zuzena izango balitz, Batzorde Nagusiaren egiteko, hautagaiaiak Batzar Nagusira zuzenean pasa ala ez erabakitzea besterik ez litzateke izango. Iritzi batzuk elkartrukatu ostean Batzordeak hautagaiaiak aldarrikatzea **Erabaki du** eta berauen proposamen idazkiak bakoitzaren curricularekin Elkarteko Batzorde Nagusira helaraztea. Batzar Nagusiaren hautaketa ekitaldian baziodeek txartel bat emango dute hautagaiaiaren izenarekin, honen onespenarekin beti ere, edota botua zuriz eman lezakete.

5.- Kultur Erakundeak Batzorde Nagusian sartzeko proposamena.

Argi geratu da Elkartea euskal kulturaren ikastun eta ikastun ororen topagune dela, bai eta, helburu horietaz arduratzentz diren erakundeena legez. Herriaren bizitza ez da gelditzen eta erakunde berriak sortzen dira, horietariko batzuk nabarmenak, eta herriaren kultur bizitzan finkatzen eta eginkizun azpimarragarria betetzen dutenak. Horien artean

aipatzekoak dira Renoko Unibertsitateko Basque Studies Program, Udako Euskal Unibertsitatea, Ustaritzeko Euskal Kultur Erakundea, Joxe Migel Barandiaran Fundazioa, Département Interuniversitaire d'Etudes Basques eta Antso Jakituna Fundazioa. Batzorde Nagusiaren azkeneko 'bilkuran Olaizola jn.ak proposatu zuen Elkarte hauek Eusko Ikaskuntzako Batzorde Nagusiko batzarkide oso izendatzea eta hori da Batzorde Nagusiarri bi aztergai aurkeztearen arrazoia: batetik, aurkezu diren Erakunde berrietara Eusko Ikaskuntza zabaldu ala ez eztabaidatzea, eta bestetik, eta aurrekoari baiezkoa emanet gero, proposaturiko Elkarte guztiak ala horietariko batzuk bakarrik onartu behar ote diren.

Horri buruzko iritziak trukatu ostean, Batzordeak erakunde guztiak onartu ditu, alabaina, honek uste du Lehendakaritzak eta Batzorde Ttipiak hartu behar dutela Batzorde Nagusian aurkezu diren Erakundeekin lankidetzen aritzeko egitasmo zehatz bat egiteko ardura.

6.- Diruzainaren aldeko ahalduntzapena.

Lehendakariak jakinarazi du egoki izango litzatekeela orain arte Jose Angel Ormazabal jn.ak Diruzain bezala zuen boterea, Diruzain berria den Jesus M^a Alkain jn.aren eskuetara aldatzea. Edukin korbentzionaleko testua, aldez aurretik banatu da Batzorde Nagusiko kideen artean. Batzorde Nagusiak ahalduntzea **Erabaki du** eta Elkarteko Lehendakariari eskuatu ondorengo testua notario aurrean formalizatzea:

"DIRUZAINAREN ALDEKO AHALDUNTZAPENA"

1.- Orain arte Diruzain izan den Jose Angel Ormazabal Altuna jn.ari Donostiarri Notari Miguel Angel Segura Zurbano jn.ak, 267 protokolo zenb., 1993ko otsailaren 1eko eskrituran emaniko boterea balio gabe uztea.

2.- Elkartearren Botere Solidario eta Bereizgabek, eta ondoren azaltzen direnak, Jesus M^a Alkain Martikorena Diruzainari ematea.

a) Merkataldegi, Aurrezki Kutxa eta Bankuetan kontu korronteak eta kreditu kontuak ireki, mobilizatu eta kitatzea; aipaturiko kontuetan egon daitezkeen fondoak erabat edo partzialki xedatzea, 100.000,- pta.tik gorako kopurua denean beste sinadura bat beharko duelarik; ordezkagiria, taloiak, txekeak eta mota guztietako aginduak sinatuz.

b) Elkartearren eragiketa propietarako diren igorpenak eta merkatal beste efektuak igorri eta onartu eta endosatu, negoziatu eta bermatu, bai eta beraien kontrako protesta egin bidezko denean.

c) Kobrantza eta ordainketak Elkartearren kontura egin eta xedatu Herri Ogasuna eta gainerako bulego publikoetan nahiz Estatu, Komunitate, Probintzia edo Udalerrirri edota beste Corporazio eta Erakundeetan ordezkari, bezero, agente eta hirugarrengoen eskuetan oro har, dauden fondoak, edozein delarik ere bere izaera.

d) Edozein notal aktarako beharki-dei egin, baita nabarigarriak badira ere, eta beharki-deiei erantzun; edozein agiri publiko nahiz pribatuen, hau bera barne, kopiak, testigantza eta agiriak eskuatu.

e) Gutunak jaso, ireki eta erantzun, telegrafikoa, telefonikoa eta beste edozein motatakooa, bai eta postako agiriak, deklaraturiko baloreen pleguak eta postaz bidali eta igorritako

guztia; halaber, tren geltokietatik, edozein portuetako kaietatik, eta garraio agentzietatik Elkartearren izenean konsignaturik dauden paketeak eta gauzak jaso, beharrezko diren erreklamazioak eginez.

f) Eta aipaturiko efektuei eman, eta agiri publiko eta pribatuak sinatu konferituriko ahalmenen ihardunik onenerako.

3.- Gregorio Monreal Zia Lehendakariari gaitasuna eman, Jesus Maria Alkain Martikorenarekin batera Notari aurrean ager dadin eta dagokion ahalduntzapen eskritura publikoa eman diezaion.

7.- Diruzaintzaren txostena.

Eusko Ikaskuntzako Diruzain Alkain jn.ak hartu hitza eta esan Gai ordeneko 2. eta 3. puntuak trataterakoan, Lehendakari jn. nahiz Batzorde Nagusiko zenbait kide Elkartearren egoera finantz-ekonomia larriari buruz kezkaturik mintzatu badira ere, zenbait datu argigarri azaldu nahi dituela, Eusko Ikaskuntzak gomendatu eta zorroztasun profesionalarekin burutzea ulertzen duen moduan egin da, bere azalpenean ahalik eta argiena izaten saiatuko dela dioen bitartean. Lehenik eta behin Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako, eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariek ez egotea sentitu zuen, Elkartea non eta zerekin topo egiten duen zuzen-zuzenean ezagutzeko aukera izango zutelako, elkartea bezala gestio ordenatu bat burutu ahal izateko behar hainbat baliabide ez dituelako.

Hala ere, horregatik ez duela dramatizatu nahi eta bilkura hau aieneka ekitaldi bat bilakatu, aldiz, Diruzaintzaren egoera osatzen dute diru-sarreren eta gastuen zifra batzuk ezagutarazteria mugatuko dela soiliik, bakoitzak bere iritziak eraiki ditzan eta ondorio egokiak atera, ohartaraziz halaber, esperientzi propioaz ezagutzen dituela Erakunde Publikoek aurkitzen dituzten eragozpenak, hauengana heltzen diren diru laguntzen eskari guztiei aldeko erantzuna eman ahal izateko.

Bere azalpenean adierazi du ez dela ariko 1993ko lehen hiruhileko Diruzaintzaren kontuak ematen, oraingo bilkurarako dokumentu dossier bat sartu delako, alabaina, datu aurrerapen berriki bat azalduko duela, ekainaren 25eko egunari dagozkionak eta Idazkari Tekniko Jose Angel Ormazabal jn.ak prestatu dizkionak.

Lehen hiruhilabetean eginiko diru-sarrerak, ekainaren 25eko datuen arabera 19,5 milioe pta.koak dira, orain arte egindako gastuena 30 milioe pta.koa den bitartean, Diruzaintzan egoera 10,5 milioe pta.rekin defizitariora suertatzen delarik, 1992ko ekitaldiko finantzak baliabideekin eta KUTXAren zorpenera joaz aurre egin ahal izan bada ere, zeinak, horretarako hainbat aldiz eginiko eskaerak, lagunduz erantzun dituen.

Horrela, otsailaren 15ean, zor baimenduaren muga 3 milioetako zen; ekainaren 16ean 4 milioetako eta eskaera berri bat prestaturik daukagu ekainaren 30eko ordainketei aurre egiteko, eta modu honetan zor baimendua 6 milioetan kokatuko da.

Ez da beharrezkoa Eusko Ikaskuntza bezalako ekonomia doi-doi batentzat diru honen kostuak suposatzen duen zerga handia azpimarratzea, helburu kultural propioen betekizunetara ardurazki zuzendu behar lituzkeen bere baliabide murritzen zati bat "finantz-gastuetara" bideratzera behartua dagoelarik.

Lanerako kapital sozial propio baten gabeziak, elkartea merkantil bateko kapital kontuarekin gertatzen den legez, betebehar sozialen berehalako mugaegunen eta lagunza

instituzionalak transferitu duten egunen arteko desorekei aurre egin ahal izatea da kontu korronteko zorpeko hauetara jotzera behartzen duen karia.

Alabaina, lanerako kapital hau ere ez litzateke nahikoa izango, urteko dirulanguntzak proportzio berean ez badira hazitzen, gutienez, gastuak, Kontsumoaren Prezio Indizea gutxienez aplikatz, pezetaren beherakadaren adierazgarri.

Alkain jn.ak esan du baita, Batzorde Nagusiari dei bat egin nahi diola, gertakizun bati buruz, bere ustez elkartea ordenatu baten kudeaketan erabat lekuz kanpo dagoelako.

Kongresurako eta 75. Urtemugarako ustezko aurrekontu berezi baten kargura zenbait gastu burutzen ari garela dio, joan den martxoaren 27an Batzorde Nagusiko bilkuraren jakinarazi zen bezala, zeinaren aurrikusitako urteko montantea 22,7 milioe pta.koa den, eta egungo egunerarte ez dugu diru hori jasoko dugun edo ez dugunaren inolako berri zehatzarik, eta diru-sarrera berezien aurrekontu koerlatiboa osa beharko lutekeena.

Puntu honetara iritsitakoan komeni da jakitea 1991az geroztik Elkartearren ohizko beharretarako erakundeek egin dituzten ekarpenak, ez xedezenak, eta ondoko taulan laburbiltzen ditugunak:

ERAKUNDEAK	(milioi pezetatan)		
	Eginiko ekarpenak	1991	1992
			(Aurrekontu)
Nafarroako Gobernua	9.000	9.569	-
Arabako Foru Aldundia	6.800	6.800	4.800
Bizkaiko Foru Aldundia	12.000	10.000	-
Gipuzkoako Foru Aldundia	12.000	12.000	12.000
Eusko Jaurlaritza	7.500	7.000	7.891

Ez da ezagutzen oraino Nafarroaren asignazio aurrekontuan 1993. urterako emaniko guztia. Alabaina, jakin badakigu urte bereko otsailaren 24an 7 milioe pta. transferitu zituela Eusko Ikaskuntzarako.

Ez dakigu ere ez Bizkaia 1993. urterako aurrekontuan ezarri duena.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan ezarritakoa 7,891 milioe pta.koa dela badakigu, joan den otsailaren 12an 2,891 milioe pta.ko transferentzi bat burutu zuelarik.

Arabako Foru Aldundiak 1993. urterako duen aurrekontu asignazioaren guztia 4,8 milioe izanik, martxoaren 15ean 3,4 milioetako emanaldi bat kontura egin zuen.

Bukatzeko, Alkain jn.ak esan du berak prestatu duen txosten xume baten aipamena egin nahi zuela eta honen irakurketa osoa une honetan ekidin nahi diela Batzorde Nagusiko kideei, Idazkaritzan nahi duenaren eskura baldin badago ere.

Aipaturiko txostenean zenbait alderaketa azaltzen dira, 1991ean kataluniar Erakunde publikoek Institut d'Estudis Catalans eginiko ekarpenen eta gure Erakundeek Eusko Ikaskuntzari eginikoeneren artean.

Une honetan azpimarratu nahi ditudan datuak hauek dira:

Erakunde publiko kataluniarrek Institutoari 1991ean eginiko ekarpenak	493,2 milioe pta.
Idem. euskaldunek Eusko Ikaskuntzari	80,7 milioe pta.
Kataluniako BPGari buruz, kataluniar ekarpenek suposatzen dute...	%4,32
Nafarroako Elkartea Foraleko eta Euskal Elkarte Autonomoko BPGari arabera, ekarpenak dira.....	%1,91
Katalunian bizi den biztanle bakotzeeko ekarpenek suposatzen dute	81,80 pta./bizt.
Nafarroako Elkartea Foraleko eta Euskal Elkarte Autonomoko biztanle bakotzeeko ekarpena	30,75 pta./bizt.

8.- Bazkide berrien zerrenda.

Bazkide berrien zerrenda osoa **onetsi da**.

9.- 75. Urtemugako Ekitaldiak.

Bizkaiko Lehendakario deak 75. Urtemugan Oñatiako Unibertsitatean egingo diren
Ekitaldi Oroitgarriak azaldu ditu.

Batzorde Nagusiak zera erabaki du:

1.- Ekitaldi oroitgarriek ez ospatzea, aurrikusi den dirulaguntzarik izaten ez den
bitartean.

2.- Lehendakariari konfidantza botu bat ematea, aurrekontuak behar hainbeste
murriztuta bederen egitarau bat aurrera ateratzeko, Oñatioko Ekitaldira etorriko direnaren
hitza hainbat pertsonek eman dutelako.

10.- XII. Kongresuaren txostena.

Joseba Agirreazkuengak Batzorde Zientifikoaren eta Eusko Ikaskuntzaren XII.
Kongresu Antolatzalearen bilkuraren berri eman du: gaurregunerarte 40 komunikazio titulu
jaso dira eta jatorrizkoak jasotzeko epea irailaren 30 arte luzatuko da.

Berebat, behin betiko egitaraua ia erabat amaituta dago eta 80 pertsona baino gehiago
ari dira hitzaldi desberdinak lantze lanean. Kongresuaren finantzazio iturriei dagokienez,
Gentza Belaustegigoitia jn.ak zenbait harreman izan ditu erakunde publiko eta argitalpen
enpresekin, baina egungo egunerarate diru-sarrerarik ez da jaso Kongresurako aurrikusi
den gastuen zuloa estaltzeko. Ezohizko egoera honen aurrean, iraileko Batzorde Nagusiak
erabaki beharko du XII. Kongresua egin ala ez.

Halaber, jakinarazi du Kongresua Nafarroako Gobernuko eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntz Kontseilariei aurkeztu zaiela.

11.- Lan Sailen egoerari buruzko txostena.

Lehendakariak esan du Sailen erreforma eta eguneratzea direla Elkartearen sinesgarritasuna konprómetatzen duen zentru eta muina. Sail batzuetan egiten ari diren ahaleginen berri eta Saitetako Lehendakarien Batzorde batek Gipuzkoako Lehendakiordearen eskutik burutu duen lanaren berri eman du.

Gipuzkoako Lehendakario deak Saitetako Lehendakarien azkeneko bileran hartutako oinarrizko erabakien berri eman du.

12.- Saitetako Lehendakarien txostena.

Dokumentazio karpetan ondoko Saitetako Lehendakari bakoitzak prestaturiko txostenak sartu dira: Antropologia/Etnografia, Arte Plastiko eta Monumentalak, Hezkuntza, Hizkuntza eta Literatura, Komunikabideak eta Historiaurrea eta Arkeologia. Akta honen eranskin bezala agertzen dira.

Zinematografia Saileko Lehendakari Xabier Arlabanek hartu du hitza jakinarazteko, Saileko kide aktibuen lanbide iharduerari izaera txit praktikoa emanen dietela, garatu nahi diren lanen aurrekontuak Elkartea aurrikusi dituen dirulanguntzak baino askoz handiagoak izango direla, Sailaren bideragarritasuneko egoera hauek aztertzea beharrezko deritzaiolarik.

Zentzu honetan eta Eusko Ikaskuntzaren ahalmen ekonomikoa hobea izaten denean, komenigarritzat jotzen da, ikus-entzunen arloan gutxinezko azpiegitura batetaz hornitzea, lanen kostua nabarmen jaitsiko litzatekelako. Horrek eragingo luke baita Sail honen ikus-entzunen inguruan beste Saitetarako lanak burutzea.

13.- Ikerketarako dirulanguntzak.

Arrizabalaga, Etxeberria eta Ormazabal jn.ek prestatu duten dokumentu baten berri eman dute eta Batzordeari aldez aurretik banatu zaioenez gero, batzarkide guztiak badutela bere berri esan. Horri buruz iritzi batzuk trukatu eta eraldaketa batzuk erantsi ostean **erabakia** akta honetan eranskin gisa gelditu da.

14.- Galde-erantzunak.

- Imanol Olaizola jn.ak eskatu du Elkarrean aurkitzen den egoera ekonomikoari buruzko txostenen ondorioak ikusirik, oinarrizko kontsiderazio guztiak aktan jasoak gera daitezela.

Euskal gizona edo euskal kulturaren Museo bat eratzeko proiektuaran berri eman du eta aipatu Museoa sortzeko eman beharreko laguntza.

- Lola Valverde and.ak agerian jarri du Elkartearren lexikoa egokitzea beharra, Emakundek eginiko oharreren jenerario dagokionez.

Halaber, Lola Valverde and.ak jakinarazi du Ondare kulturalaren Batzorde Jagole bat sortu dela, batzorde desberdinak Lehendakariekin osatu dutena, eta Herrialdearen egoera aztertutakoan bereganatu dituen ezagupideen ostean egiten ari den gomendioena.

- Coro Cillan and.ak bere kezka agertu du Nafarroako Lurralde Entzategian dauden dokumentazio fondoengatik, Erakunde juridiko hau egoitzaz aldatzen ari dela eta, arriskuan egon daitezkeelako.

Era berean, Coro Cillan and.ak eskertu eta adierazi nahi du Juan M^a Bandres Europarlamentariak eskainitako lagunza, E.E.Earen esparruan eginiko ikerketa lanak kudeatzeko.

German Yanque jn.ak hartu du hitza eta esan bere ustez Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilaritzak Elkartarekiko duen jarrerak ezinikusi pertsonalaren zantzua hartzen ari dela. Are, sotiltasuna izan bada Eusko Ikaskuntzaren ezaugarria eta egungo kultur eskuhartze ingurumenek Kontseilarizarekin elkarritzetak eta formak mantentzea eta behar hainbeste azalpen ematea eskatzen badute ere, ezerk ez duela behartzen -Elk bizirik irauteko eta bere betekizunen burutzapen egokia lortzearen- Euskal Legebitzarreko, Nafarroako Parlamentuko eta Lurralte Historikoetako talde politikoekin harremanak ezartzera, ez eta gizartearen laguntzarik handiena eskura nahi izatera.

- Azkenik Lehendakariak eta batzarkide batzuren eskaria jasoz, beriki hil diren Nicanor Zabaleta jn.aren eta Manuel Laborde jn.aren oroimen eta omenaldia aktan jaso dadin eskatu du, bai eta Armando Llanosi dolumin gutun bat bere seme hil berriengatik igortzea.

● ACTA DE ACUERDOS N° 80 DE LA REUNION DE LA JUNTA PERMANENTE DE EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - CELEBRADA EL 26 DE JUNIO DE 1993 EN EL PALACIO DE LA EXCMA. DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

Asistentes:

D. Gregorio **Monreal** (Presidente), D. Joseba **Agirreazkuenaga** (Vicepresidente por Bizkaia), D. Joxemartin **Apalategi** (Vicepresidente por Gipuzkoa), D^a Isabel **Ajuria-guerra** (Vicepresidente por Iparralde), D. Tomás **Urzainqui** (Vicepresidente por Navarra), D. Edorta **Kortadi** (Secretario), D^a Gurutzi **Arregi** (Vicesecretaria), D. Jesús María **Alkain** (Tesorero), D. José **Zufiaurre** (Vicetesorero), D. Imanol **Olaizola** (Miembro Vitalicio), D^a Mirenxtu **Goñi** (Presidente de la Sección de Antropología y Etnografía), D^a Laura **Aisenson** (Presidente de la Sección de Artes Plásticas y Monumentales), D.Xabier **Arlaban** (Presidente de la Sección de Cinematografía), D^a Coro **Cillan-Apalategui** (Presidente de la Sección de Derecho), D^a Lola **Valverde** (Presidente de la Sección de Historia y Geografía), D. José M^a **Etxebarria** (Presidente de la Sección de Lengua y Literatura), D. Germán **Yanke** (Presidente de la Sección de Medios de Comunicación), D. Alvaro **Arrizabalaga** (Presidente de la Sección de Prehistoria y Arqueología), D^a María Jesús **Aranburu** (Representante de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa), D. Francisco Javier **Zubiaur** (Representante del Excmo. Gobierno de Navarra y de la Institución Príncipe de Viana), D^a. Ana **Toledo** (Representante de la Universidad de Deusto - Campus de Donostia), D. Francisco **Etxeberria** (Representante de la Sociedad Aranzadi).

Excusan su asistencia: D. José M^a **Ortuño** (Vicepresidente por Alava), D. Juan **Garmendia Larrañaga** (Secretario Gestor), D. José M^a **Urkia** (Coordinador de la Sección de Ciencias Médicas), D. José Javier **Granja** (Presidente de la Sección de Educación), D. Pedro **Ramos** (Representante de la Excma. Diputación Foral de Alava), D. Jean **Haritschelhar** (Representante de Euskaltzaindia), D. Enrique **Knörr**

(Representante de Euskaltzaindia), D^a Ana María Echaide (Representante de la Universidad de Navarra), D. José Manuel Lopez de Juan Abad (Representante de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País),

Antes de comenzar la reunión de la Junta Permanente D^a María Jesús Aranburu, Diputada de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en representación del Excmo. Sr. D. Eli Galdos, dirige unas palabras de salutación en las que excusa la ausencia del Diputado General por hallarse en el Congreso de ELA, y hace suyos los afanes y programas de Eusko Ikaskuntza, deseando que se cumplan de la manera más adecuada y debida.

El presidente solicita de los miembros de la Junta autorización para incluir un nuevo punto en el orden del día que se formularía de la siguiente manera: Ayudas a trabajos de investigación. La propuesta es **Aprobada** por unanimidad.

1.- Aprobación, si procede, del Acta de la sesión anterior.

Se procede a la lectura de las ENMIENDAS presentadas por el Sr. Olaizola al Borrador del Acta de Acuerdos nº 79 de la reunión de la Junta Permanente del 27 de Marzo de 1993. Son las siguientes:

En la pág. 2 - punto 1.1. incluir "Dar lectura y". Queda como sigue:

"....., la Junta Permanente acuerda: 1) Dar lectura y aprobar la redacción del discurso de bienvenida del Excmo. Sr.D. Juan Cruz Alli,....."

En la misma pág. 2 y en el mismo punto añadir "extracto del.....". Queda como sigue:

"2) Aprobar la redacción del extracto del discurso del Excmo. Sr.D. Alberto Ansola....."

En la pág. 13 - punto 22 sustituir Intxaurreondo por Miracruz. Queda como sigue:

".....traslado de los fondos del CDHC a Villa Asunción en Miracruz."

Se **aprueba** el acta con las enmiendas presentadas.

2.- Cumplimiento de los Acuerdos adoptados en la sesión precedente.

